



Zigor Olabarria, Eleak-Libre

“AUTOZENTSURA BILATZEN DU MOZAL LEGEAK”



Xabier Letona

@xletona

Zigor Olabarria (Gasteiz, 1977) Eleak-Libre Dinamikako kidea da. Eleak 2011n sortu zen Euskal Herriko eskubide zibil eta politikoen alde jarduteko eta orain-tsu bat egin du Herri Harresien inguruko Libre dinamikarekin.

Uztaitetik urtarrilerira Mozal Legea dela 715 zigor jaso dira Hego Euskal Herrian. Oro har, zein eratako salaketak dira?

Batez ere desobedientzia arinak, poliziaren jarduna trabatu izana eta irainak dira. Hemen ere arrazoiak antzekoak izango dira. Adibidez, Donostian Kortxoenea eraisten ari zirela, gazte bat irudiak hartzen ari zen mugikorrarekin eta udaltzain batek esan zion grabatzeari uzten ez bazion isuna jarriko ziola. Gazteak utzi zion grabatzeari eta kito, baina eskubide bati uko eginda. Jorge Fernández barne ministroak argi esan zuen *El País*eko elkarrizketa batean, irudiak hartzea posible dela, hauen erabilera da zigortzen dena. Beraz, udaltzain hark, barne ministroak berak baino begirune gutxiago erakutsi zuen askatasunekiko.

Beste kasu batean, Bilboko Zabalburu Plazan emakume batek ikusi zuen udaltzain bat modu zakarrean identifikatzen etorkin bat. Hauek zerbait esan, eta emakumeak begiratzen jarraitu nahi zuela erantzun zien. 700 euroko isuna jarri zioten udaltzainen lana oztopatzegatik.

Ahotsa.info-ri ere 35.000 euroko mehatxua egin zioten poliziaren parte-hartze bateko argazkiren batean kalez jantzitako poliziak agertzen zirelako –uniformatuek aurpegia estalia zuten–. San Ferminetan egindako argazkia zen, egin zuen kazetaria ez zihoan argazki haien bila, ez zekien polizia horiek han egon zitezkeenik ere, baina ohartarazpena iritsi zitzaion medioari.

Errepresio zuria deitu izan zaio Mozal Legeak eragiten duenari. Zergatik?

Beste errepresio mota batzuk ikusgarriagoak dira eta, beraz, errazagoa da gizartean jakinaraztea eta elkartasuna bilatzea. Mozal Legean poliziek batzuetan jakinarazten dute momentuan salaketa eta beste batzuetan ez, Axier Lopezi orain gertatu zaion moduan. Elkartasun gehiago sor dezake norbait atxilotzeak eta hilabete batzuk espetxean pasatzeak, baina isun batek, errepresio ekonomikoak, eragin gehiago izan dezake, desmobilizatzaileagoa da. Horregatik jarri dute orain indarrean, eskubide sozialaren galera handi baten testuinguruan. Autozentsura eta gure buruari mugak jartzea bilatzen ditu Mozal Legeak.

Europako Kontseiluak kezka agertu du Legeagatik, Eusko Legebiltzarrak atzera bota zuen, Kongresuak ere bai oraintsu, gizarte mugimenduak aurka dira... Ikusten duzu aukerarik atzera botatzeko?

Maila makropolitiko horren eraginez zaila izango da. PSOE-C's itunean, PSOEek artikulu batzuk kentzea proposatzen du, ez lege osoa atzera botatzea. Gauzak aldatzeko indarguneak herri-tarrengan egon behar du eta, gainera, indar harremanak nola dauden ikusita, ez dugu beste aukerarik, lege hori desobeditzea eta praktikan gure eskubideak indarrean jartzea baino.

Aldi berean oso inpopularra da, eta horrek desobedientziarako aukerak irekitzen ditu. Baliatzen ari da behar beste aukera hori?

Argi da ezetz, isunek heltzen jarraitzen dute eta. Horretan gabiltzanok ez dugu lortu gaiak duen larritasuna gizarteratzea. Kritika eta ekimen asko egon dira, baina ez halako lege bat atzera botatzeko adina. Hemengo instituzioek, adibidez, har dezakete lege hori ez aplikatzeko erabakia, baina aplikatzen ari dira, eta hori guztiz salagarria da. Lehen



“Agian ezin dugu legea atzera bota, baina lor dezakegu legea ez aplikatzea”

jarritako kasu gehienetan udaltzainek baliatu dute legea. Herritarrok beti egin duguna egiten jarraituz gero, desobedientzian kokatzen gara lege honekiko.

Eleak mugimendutik, zer gomendatuko zeniekete edozein arrazoiengatik halako isuna jaso duen pertsonari?

Hauek ez dira arazo pertsonalak eta, beraz, ez zaie egin behar aurre modu isolatuan; irtenbideak ahalik eta kolektiboena izan behar du. Gutxienez isunaren berri eman behar da eta berau salatu. Ordaindu edo ez? Oso zaila da esatea zer egin behar den, ordaintzen ez baduzu ondasun bahiketak datoz eta. Halako egoerei eutsiko dien koltxoi soziala pres-tatu behar dugu. Mobilizazioa eta sare-tzea bultzatzea oso garrantzitsua da eta agian ezin dugu legea atzera bota, baina lor dezakegu legea ez aplikatzea. ■



Alba Villanueva, No Somos Delito

“EGOERA EZ JUSTUETAN, BETI ATERA BEHAR DUGU SMARTPHONEA ETA GRABATU”

Xabier Letona

@xletona

Espanian 2013an Zigor Kodearen erreforma plazaratu zenean sortu zen No Somos Delito plataforma eta ehun taldetik gora biltzen ditu. Zigor Kodea, Herritarren Segurtasunerako Legea eta Segurtasun Pribatuaren Legean egindako erreformak atzera bota nahi ditu.

Iazko uztailean onartu zenetik, nola ari da eragiten Mozal Legea Espainiako Estatuan?

Ikusi dugu batez ere sare sozialetako iruzkinei eta irudien argitaratzei eragin diela. Kasu batean Facebooken poliziaei “escaqueados” deitzeagatik batek salaketa jaso zuen, eta berdin beste batean polizia bati “colega” deitzeagatik.

Herritarren Segurtasunerako Legea oso modu arbitrarioan baliatzen ari da polizia, legearen interpretazioa bere esku uzten du. Begirune ezari buruzko artikulua, adibidez, ez du zehazten zer den begirune falta. Poliziari botere gehiago eman zaio, bere bertsioa salatutako pertsonen iritzia ginetik dago eta orduan polizia asko bapo ari dira baliatzen hori.

Zergatik bereziki sare sozialetan?

Ikusi dute hor sortzen den biralitatea oso indartsua bilaka daitekeela eta saiatzen ari dira sareko iritzia mugatzen, bereziki poliziari dagokion guztian.

Legea, gainera, oso zabala da.

Bai oso zabala da eta aldi berean oso zehazkabea. Era ireki batean irakurrita ez litzateke zigorrik jarriko. Poliziaren sindikatuek ere aipatu izan dute poliziek ez dutela behar adinako formaziorik legea behar bezala aplikatzeko. Lege batek zehatza izan behar du eta hau guztiz kontrakoa da. Lege honek desgertu egin beharko luke.



AGORA SOL IRRATIA

“Gomendioa da orain arteko lan moldeari eustea da eta ez beldurrik izatea lege honek ekar ditzakeen ondorioei”

Joan den astean Espainiako Kongresuak eskatu zuen bertan behera uztea Mozal Legea. Posible ikusten duzu halakorik?

Prozesu hau zaila da orain, batez ere Gobernu funtzioetan dagoenean eta ekimen legegilerik bideratu ezin duenean. Kongresuak ez-legezko proposamena onartu zuen, hau da, lege hau kentzeko eskaera. Oso adi egon behar dugu ikusteko Espainiako Gobernuak zer egiten duen.

Kenduta ere Corcuera Legera itzuliko ginateke, 1992an “atean emandako ostikoaren” lege gisa ezagutu zena.

Hala da bai, ezin esan lege hori begirune

handikoa denik giza eskubideak eta oinarrizko eskubideekin. Honen aurka ere jardun beharko dugu. Espazio publikoa inongo lege administratibok ez arautzea litzateke egokiena. Baina egon behar bada, kontsentsu handiz egitea litzateke onena eta, batez ere, gure Konstituzioan jasota agertzen diren oinarrizko eskubideekiko begirune handiz.

Mozal Legearen aurrean zer gomendio egiten diezue kazetari eta gainerako herritarrei?

Gomendioa da orain arteko lan moldeari eustea eta ez beldurrik izatea lege honek ekar ditzakeen ondorioei. Legearen kontrako borrokan jarraitu behar dugu, herritarren oinarrizko eskubideak urratzen dituelako. Izan kazetari edo ez, egoera ez justu baten aurrean, herritarrak beti atera behar du smartphonoa eta grabatu. Poliziaren hainbat parte-hartzeetan, herritarrek egindako grabaketak poliziaren bertsioa gezurartzeko balio izan dute gero. Isunak etor daitezke, baina horretarako ere gero eta abokatu gehiago daude herri mugimenduetan, hauek bideratzen laguntzeko. Helegite hauek higadura dakarte, baina legezko bideak ere erabili behar ditugu justiziarik ez dakarten legeei aurre egiteko.

Horrez gain, argi utzi nahi dut Herritarren Segurtasunerako Legea ez dela mozal lege bakarra, Zigor Kodea eta Terrorismoaren Aurkako Ituna ere mozal legeak dira. Eta hauek eragina dute baita Segurtasun Pribaturako Legearen Erreforma edo Prozedura Kriminalaren Legean, honek finkatzen duelako nola jartzen den indarrean Zigor Kodearen Erreforma. Herritarren Segurtasunerako Legea bertan behera uzten bada, besteekin ere zerbait egin beharko dute, lotuta daude eta. Oraindik ez dakigu nola kudeatuko den hau guztia. ■